



II. ATALA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Basauriko Udala

Herri Lan Sailburu plaza bat (1) betetzeko, derrigorrezko 4. hizkuntza eskakizuna duena, hautaketa-prozesuan onartutako eta baztertutako izengaien behin-betiko zerrenda onartzea.

Alkate jaunak, 2023ko uztailaren 21ean, Alkatetza 2864/2023 Dekretua eman du. Ebazpen horrek honako hau dio:

Lehenengoa: Herri Lan Sailburu plaza bat (1) betetzeko, derrigorrezko 4. hizkuntza eskakizuna duena, hautaketa-prozesuan onartutako eta baztertutako izengaien behin-betiko zerrenda onartzea.

HERRI LAN SAILBURU PLAZA BAT (1) BETETZEKO HAUTAKETA-PROZESUAN ONARTUTAKO IZENGAIEN BEHIN-BETIKO ZERRENDA (D 4HE)

NAN	1 abizena	2 abizena	Izena	Puntuazioa guztira autobalorazio formularioaren behin behinekoa
*****86H	ODRIOZOLA	ODRIOZOLA	ASIER	100
*****98P	ARETXABALETA	ITUARTE	MAIER	80
*****11E	SANCHEZ	ARRUABARRENA	JAVIER	80
*****39L	VIECO	PUENTE	EVA	80
*****37A	ZIARRUSTA	ATUTXA	OLAIA	80
*****79G	ETXEBARRIA	BEITIA	UNAI	56,99
*****36F	ARANBERRI	AGIRREGOMEZKORTA	ITZIAR	21,1508

Bigarrena: Hautaketa-prozesu honetarako kalifikazio-epaimahaia izendatzea. Herri Administrazio eta Erakunde Harremanetarako Saileko diputatuaren martxoaren 8ko 1807/2023 Foru Aginduan izendatutako pertsonak osatuko dute epaimahaia, Bizkaiko Foru Aldundiak toki-erakunde honekin egindako kudeaketa-gomendioari jarraiki:

- Presidentea:
 - Titularra: María Uribe Guerendiain.
 - Ordezkoa: Marta Vielba Postigo.
- Idazkaria:
 - Titularra: Encarnación Martínez Zamora.
 - Ordezkoa: María Elena Iturrizaga Larrabeiti.
- Batzorkideak:
 - Titularra: Oihana Ariznabarreta Bergareche.
 - Ordezkoa: Jose Arriola de la Vega.
 - Titularra: Amaia Aramburu Larrea.
 - Ordezkoa: Aitor Ortega Ruiz.
 - Titularra: María Isabel Zarraga Buzeta.
 - Ordezkoa: Josu Martínez Serrano.
- IVAP:
 - Titularra: Manuel B. González Abrisqueta.
 - Ordezkoa: Pilar Goitia Salvatierra.

Epaimahaiko kideek ezin izango dute parte hartu, eta hautagaiek errefusatu ahal izango dituzte, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan aurreikusitako egoeraren bat gertatzen denean.



Hirugarrena: Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, iragarki-oholean eta udal honen web orrian argitaratzeko agintzea.

Laugarrena: Onarpenak ez du esan nahi prozesua izapidetzen ari den bitartean baztertuak ez izateko eskubidea eskuratu denik, proba guztiak egin diren ala ez alde batera utzita, baldin eta, aurkeztutako datuak edo dokumentazioa egiaztatzearen ondorioz, hautapen-prozesuan onartzeko eta parte hartzeko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen ez dituela ikusten bada. Kasu horretan, epaimahai jarduleak baztertzeko proposamena egingo du, interesdunari entzun ondoren, Alkatetza Lehendakaritzak dagokion ebazpena eman dezan.

Bostgarrena: Ebazpen honen aurka, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio udalbatzako alkate-udalburuari, hilabeteko epean, edo, bestela, zuzenean inpugnatu ahal izango da administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratzen denetik hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112., 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Basaurin, 2023ko uztailaren 26an.—Alkatea, Asier Iragorri Basaguren